



FUNTSEZKO ELKARTEA

Canvas ereduaren arabera, funtsezko-elkartea negozio-eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da.

Guk gure enpresaren bitartez, abenturazko parkearekin, hainbat ekintza eskainiko ditugu.

Bi multzotan sailkatzen ditugu: guk prestatu eta eskainiko ditugunak eta beste batzuk, beste enpresa batzuekin elkartuta eskainiko ditugunak. Azken multzo horretako ekintza bat paintball da, baina ekintza hau ez da gure menpe egongo; izan ere, paintballean espezializatutako beste enpresa batek eramango du jarduera: Zubietako *Paintball Jaizkiball* elkarteak hain zuzen ere. Hau, lehiakideen arteko aliantza estrategikoa izango da. Alde batetik, paintball enpresari onura egingo diogu gure parkean beraien zerbitzua eskaintzeko aukera emango diogulako, eta leku desberdinetan beraien enpresa ezagutzera eramango dutelako. Beste alde batetik, guretzako ere onuragarria izango da paintball enpresarekin aliatzea, etekinak partekatu ahal izango ditugu eta.

Horretaz gain, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa ere izango genuke. Gure parkearen barruan, bezeroen eskura dagoen “jateko eta edateko” aukera eman dezakeen “Furgo-food” bat jarri daiteke kasuan kasu. Bertan, edariak zein jakiak aurkituko dira, eta bezeroek momentu oro izango dute erabilgarri. Parkalaiek naturaren harreman zuzena duela kontuan hartuta, eskainiko ditugun produktuak (*snack, sandwich*, edariak...), lehengai osasungarri eta naturalekin egindakoak izango dira, hau da, kontserbagarri eta koloratzaile artifizial gabekoak.

Azkenik, gure enpresaren publizitaterako, turismo bulegoa izango dugu aliantza gisa. Bertan, gure enpresaren inguruko informazioa biltzen duen triptikoa utziko dugu bezeroen eskura. Hauen bitartez, bezeroek informazioa bakarrik jasoko dute, eta gurekin kontaktatu nahi izanez gero, webgunea edo telefonoa erabili beharko lukete.